

Leioak 'hamabost egun solidario' ekimena antolatu du, garapenerako lankidetzan egindako lana ikustarazteko

- Aukera ona izango da GGKEk herrialde pobretuetan egiten duten lana jai-giroan ezagutzeko; izan ere, hainbat jarduera prestatu dira, hala nola erakusketak, zinema, tailerrak eta solasaldiak, baita gazteenentzako beste batzuk ere: ipuin-kontalariak, musika...

Agenda

Ekainaren 11ra arte, 09:00etatik 21:00etara:

- Erakusketa: 'Leioaren 15 urteko konpromiso solidarioa Dominikar Errepublikarekin', Edex fundazioak antolatuta.
- Erakusketa: 'La magia de la diversidad / Aniztasunaren xarma', Vicente Ferrer fundazioak antolatuta.
- Erakusketa: 'Urerako eta saneamendurako giza eskubidea', Zabalketa GGKEk eta IC-LI elkarteak (Ingeniería para la Cooperación- Lankidetzarako Ingeniaritza) antolatuta.

Ekainaren 1ean, 18:30etik 21:00etara

- Haurrentzako tailerrak:
 - Tolerantziarik eza, Nazioarteko Elkartasuna GGKEk antolatuta.
 - Henna-tailerrak, Leioa Pro-Sahara Fath elkarteak antolatuta.
- Zinema: *Vicente Ferrer* filma, Imanol Ariasek antzeztuta.

Anantapur-eko (India) basamortu-paisaia lur emankor bihurtzeko eta dalit-en kasta eskubide osoko herritar bilakatzeko borrokaren kontakizuna.

- Tearen zeremonia Saharan: te-dastaketa zinemaren ostean, Leioa Pro-Sahara Fath elkarteak antolatuta.

Ekainaren 8an, 18:30etik 21:00etara

- Haurrentzako tailerrak:

- Ipuin-kontalaria eta Afrikako dantzak, Manos Unidas GGKEk antolatuta.
- Solasaldiak eta film laburrak:
 - Solasaldia eta film laburra.
Izenburua: *Bidezko merkataritza sustatzea*.
Proclade Yanapay fundazioak antolatuta.
 - Solasaldia eta film laburra.
Izenburua: *Palestinako emakumeei buruzko estereotipoak hautsi eta errealitatea ezagutu*.
UNRWA – Ekialde Hurbilean dauden Palestinako Errefuxiatuentzako Nazio Batuen Agentziak antolatuta.
 - Tearen zeremonia Saharan: te-dastaketa film laburren ostean, Leioa Pro-Sahara Fath elkarteak antolatuta.